BESTELAKO XEDAPENAK

JUSTIZIA ETA HERRI ADMINISTRAZIO SAILA

3589

AGINDUA, 2011ko maiatzaren 27koa, Justizia eta Herri Administrazioko sailburuarena, «Fundación Colegio Oficial de Médicos de Gipuzkoa / Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko dena.

«Fundación Colegio Oficial de Medicos de Gipuzkoa / Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskatuz aurkeztutako espedientea ikusi eta aztertu da.

AURREKARIAK

Lehenengoa.- 2011ko maiatzaren 4an sartu zen Justizia eta Herri Administrazioaren Sailean, Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialak 2011ko martxoaren 28an eratutako «Fundación Colegio Oficial de Medicos de Gipuzkoa / Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko eskaria, Enrique Telleria Arratibelek izenpetuta. Eskabideari espedienteko agiriak erantsi zitzaizkion.

Bigarrena.- Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Aholku Batzordeko Batzorde Teknikoa bildu zen fundazioaren helburuak zilegi eta guztiontzako onuragarri direla egiaztatzeko, eta 2011ko maiatzaren 26an fundazioa erregistroan inskribatzearen aldeko txostena eman du.

Hirugarrena.- Estatutuetako 3. artikuluan ezarritakoaren arabera, Fundazioak ongintzazko laguntza-, osasun eta heziketa-izaera izango du eta haren onuradunen berehalako eta oinarrizko beharrei erantzutera zuzenduta egongo da. Horrenbestez, helburu zabal horien artean, ondokoak ditu: medikuen alargunei eta seme-alabei dohaintzak eta diru-laguntzak emateko eta medikuei eta medikuen umezurtzei bekak eta laguntzak emateko gizarte-laguntza sustatu, eman, babestu, bultzatu eta finantzatzea. Hezkuntza- eta prestakuntza-alorrean, ondokoak ditu helburu: Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialean elkargotutako medikuei zuzendautako prestakuntza-ikastaroak antolatzea; ikerketa medikoa sustatzea eta babesgabeei, behartsuei eta hirugarren mundukoei laguntza medikoa eta osasun arlokoa emateko boluntariotza bultzatzea, osasun-laguntza ematen duten GKEekin lankidetzan arituz.

Laugarrena.- Estatutuetako 5. eta 6. artikuluen arabera, fundazioaren helbidea honako hau da: Frantzia pasealekua 12, beheko solairua – Donostia (Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialaren egoitza). Bere jarduera Gipuzkoako lurralde historikoan garatuko du, hirugarren munduko babesgabeei eta behartsuei eman diezazkiekeen laguntza mediko eta osasun arlokoak alde batera utzi gabe.

Bosgarrena.- Hasierako ondare-zuzkidura eraketa-eskrituran zehazten diren Elkargoko Laguntza Kutxaren inbertsio-funtsek osatzen dute eta horien likidazio-balioa, fundazioaren eraketa-egunean, 1.427.058,20 eurokoa da. Inbertsio-funts horiek Bankoa SA erakundean gordailatuta daude.

Seigarrena- Patronatuari dagokio fundazioa ordezkatzea, administratzea eta gobernatzea. Patronatuko kideek dohainik beteko dituzte beren egitekoak, fundazioaren estatutuetan xedatutakoaren arabera.

Zazpigarrena.- Estatutuetako 11. artikuluan ezarritakoaren arabera, Patronatua bi urtetik behin berrituko da, erdia aldi bakoitzean, eta kideak aldi bererako berrautatu ahal izango dira mugarik gabe; lehendakariak eta idazkariak ez dute kargua utziko aldi berean eta gobernu-organoa berritu ondoren aukeratuko dira.

Patronatuko kideak, hasieran, fundazioa eratzeko eskrituran ezartzen denez, hauek izango dira:

Kargua	Patroia
Lehendakaria	Manuel García Bengoechea
Diruzaina	Coro Ezeiza Tellería
Idazkaria	Milagros Garicano Irutetagoyena

Guztiek onartu dituzte beren karguak, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 12.1 artikuluan ezarritako moduetariko baten arabera.

ZUZENBIDEKO OINARRIAK

Lehenengoa.- Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari dagokio Fundazioaren eraketa inskribatzeko espedientea agindu bidez ebaztea. Hala agintzen da Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 3-1 artikuluan, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Babeslaritzaren Erregelamendua onartu zuen ekainaren 19ko 100/2007 Dekretuaren 4.1.a) artikuluan, eta Justizia eta Herri Administrazio Sailaren egitura organikoa eta funtzionala ezartzen duen abuztuaren 28ko 472/2009 Dekretuko 4. artikuluan.

Bigarrena.- Horretarako legitimazioa daukan pertsona juridiko pribatu batek sustatu du espediente hau. Espedienteari, bestalde, funtsezkotzat jotzen diren datu eta agiriak erantsi zaizkio, eta bereziki, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioei buruzko ekainaren 17ko 12/1994 Legearen 6., 7. eta 9. artikuluetan eta Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 36., 37., 38. eta 39. artikuluetan ezarritakoa betez. Lege eta erregelamenduzko manuen arabera egin da Fundazioaren eraketa.

Aipatutako arauak eta, oro har, kasu honetan aplika daitezkeen gainerakoak ikusirik

EBATZI DUT:

Lehenengoa.- Donostiako «Fundación Colegio Oficial de Medicos de Gipuzkoa / Gipuzkoako Sendagileen Elkargo Ofizialeko Fundazioa» Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroan inskribatzeko agintzea, gaurko datarekin eta F-300 zenbakiaz, bai eta patronatuko hasierako osaera ere. Patronatuko kideak zazpigarren egitate-aurrekarian aipatzen dira, eta guztiek modu adieraziz onartu dituzte beren karguak, hain zuzen ere Manuel Fernando Canovas Sánchez notarioaren aurrean, 2011ko martxoaren 28an egiletsitako eraketa-eskrituran jasotako zehaztapenekin bat etorriaz (Protokolo-zk.: 373).

Bigarrena.- Fundazio hori, bere helburuak kontuan hartuta, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroko 2. sekzioan inskribatzea, Euskal Autonomia Erkidegoko Fundazioen Erregistroaren Erregelamendua onartzen duen ekainaren 19ko 101/2007 Dekretuaren 2-2 artikuluan xedatutakoarekin bat etorriz.

Hirugarrena.- Agindu hau Euskal Herriko Agintaritzaren Aldizkarian argitaratzea eta fundazioari bidaltzea.

Agindu honek administrazio-bideari amaiera ematen dio; eta beraz, bere aurka aukerako berraztertzeko errekurtsoa aurkez dakioke Justizia eta Herri Administrazioko sailburuari, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera hilabeteko epean; bestela, administrazioarekiko auzi-errekurtsoa aurkez daiteke, Euskal Autonomia Erkidegoko Auzitegi Nagusiko Administrazioarekiko Auzietako Salan, agindua jakinarazi eta biharamunetik aurrera hil biko epean.

Vitoria-Gasteiz, 2011ko maiatzaren 27a.

Justizia eta Herri Administrazioko sailburua,
IDOIA MENDIA CUEVA.